

SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO HIRI-HONDAKINEN
EDUKIONTZIAK ATZETIK BILTZEN DITUEN IBILGAILUAZ
HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

SAN MARKOKO MANKOMUNITATERAKO HIRI-HONDAKINEN EDUKIONTZIAK ATZETIK BILTZEN DITUEN IBILGAILUAZ HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

1.- ORRIAREN XEDEA

Aipatu orriaren helburua atzetik jasotzen diren edukiontzia biltzeko ibilgailuaz eta karrozeria egokiez hornitzea da. 12 m³-ko edukierako kaxa finkoa izango du. San Markoko Mankomunitateak bere aginpideko hiri-eremuan ezarriak dituen bilketa-zerbitzu desberdinetan erabiliko da. Kontratazioa Orri honekin eta Administrazio Baldintzen Orriak dituen zehaztapenekin bat egingo da.

Bilketa-ibilgailua, nagusiki, merkataritzako kartoia “atez ate” eta paper-kartoi nahiz etxeko ontzi arinetarako edukiontzia jasotzeko izango da.

Esleipendunek ibilgailuak karrozeria osoz entregatuko dituzte eta ondorio guztietarako beraien erantzukizuna da kaxaren eta xasisaren arteko egokitasuna eta bateragarritasuna. Mankomunitateak izendatzen dituen instalazioetan entregatuko da, errepidean jarrita, aseguruaren faltan besterik gabe. Horregatik, lizitazioaren prezioa legezatu, matrikulatu eta errotuluak jartzearen ondoriozko gastu guztiak sartuko dira.

Era berean, erabilera eta mantentze-lanetarako dokumentazioa entregatuko da eta hornitutako ekipoa maneiatzeko prestakuntza-ikastaroa irakatsi ere bai.

2.- ZHAZTAPEN TEKNIKOAK

2.1. Araudia eta segurtasuna

Ibilgailua eta kaxa entregatze-unean indarrean dauden makinaren eta eraikuntzen zuzentarauarekin eta ingurunean soinu-igorpenak arautzen dituen araudiarekin bat etorriko dira. Datu horiek enpresa independenteek egindako txostenek bermatuko dituzte. Bertan xede horrez egindako neurketa teknikoak eta dagozkion homologazioak jasoko dira.

Makina multzoak (xasisak eta ekipoak) EEren adostasun-aitorpena eta markaketa izan beharko du. Ezingo dira bereizita aurkeztu xasisaren markaketa eta ekipoaren markaketa. Datu horiek txosten batek bermatuko ditu. Bertan xede horrez egindako neurketa teknikoak eta dagozkion homologazioak jasoko dira.

2.2. Gainerako ezaugarri teknikoak

Ibilgailuen oinarrizko kontzepzioak hiri-eremuan hondakinen bilketa-zerbitzuari eska dakizkioken baldintzak kontuan hartuko ditu, besteak beste, gutxieneko zarata eta ihes-gasen igorpenak, maniobragarritasun ezin hobea eta edukiera-dimentsioak erlazioa.

Eskatutako ibilgailuak honako ezaugarriak izango ditu: 2 ardatz, gutxienez 14 t-ko BGM, 220 ZP-ko gutxieneko potentzia eta kaxaren edukiera gutxienez 12 m³ erabilgarri, tobera sartu gabe.

Eskainitako dituen zerbitzuak kontuan hartuta, neurri murriztuak izan beharko ditu. Hala, gehieneko zabalera 2.350 mm-koa izango da xasiserako eta 2.400 mm-koa kaxarako. Guztizko luzera 7.700 mm-koa izango da.

Segurtasunari, sendotasunari, iraupenari, estankotasunari eta garbitasunari dagokionez, baldintza egokiak izango ditu. Gainera, gutxienez honako ekipamenduz hornituko da:

Bilketa-ekipoa

2.2.1 Kaxa

- Kaxa trinkotzailea.
- Bildu beharreko hondakinaren arabera, erregula daitekeen trinkotzea.
- Goi-tentsioko altzairu-xaflazkoa; lodiera egokiekina.
- Alderik aldeko eiektorea, kaxa oso-osorik deskargatzeko.
- Tobera ikuskatzeko alboko leihoa.
- Lohi-babesak barne.
- Banda isolatzaileak araudiaren arabera.
- Koipeztatze automatiko zentralizatua izatea balioztatuko da.

2.2.2 Karga-tobera

- Zilindro hidraulikoen bitartez atzeko atea automatikoki ireki eta ixtea.
- Gutxi gorabehera 1.400 mm-ko karga-ertzaren altuera. Eragingailu erdi-automatikoarekin eraisgarria.
- Estribo-uhalek tolesgarriak presentzia-kontrolarekin, babesekin.
- 30 km/h-ko mugatzailea eta atzerako martxaren inhibitzailea langilea estriboan dagoenean.
- Atzeko lan-argia karga-zona argiztatzeko.
- Argi birakaria babesarekin
- Blokeo-tresna.

2.2.3. Edukiontzia igotzeko multzoa

- Edukiontzia atzetik igotzeko gailua, ibilgailuaren atzeko aldean jarrita, ahalik eta erabilerarik anitzekoena, 120 litrotik 1.100 litroa bitarteko edukiontzi eta ontzi normalizatuak, estalki lauak dituztenak, jasotzeko diseinatua.
- Sabelaldetik harrapatzeko orrazia eta bentosak. Buloiak dituzten 4 gurpiletako edukiontzietarako besoak.

2.2.4 Aginteak, operazio-zikloak eta kontrol-tresnak

- Funtzio askotako kontrol-monitorea ibilgailuaren kabinan. Kontrol-paneletik deskargatzeko aukera.
- Trinkotzailea eta jasogailua kontrolatzeko atzean bi botoi-multzo oso, albo bakoitzean bana, larrialdiko etena barne.
- Tobera jaisteko sakagailu bikoitz eutsia.
- Ekipoaren lan-orduen, trinkotze-zikloen eta altxaldien kontadorea.

- Kabinan gutxienez honako zuzeneko seinaleak izatea ISO emea erregeleta / konektorearen gainean balioztatuko da.

Seinale digitalak:

.- Igotze-zikloa. (Alboa +24 V kz, iraunkorra zikloan zehar)

.- Jaiste-zikloa. (Alboa +24 V kz, iraunkorra zikloan zehar)

.- Pisatze-puntua. (Alboa +24 V kz, pisatze-puntu bezala zehaztutako puntutik pasatzean puntuala)

Elikadura-hartuneak babes-fusibleekin:

.- ISO konektorea honako seinaleak jartzeko instalazioarekin:

+24V kz zuzena

- Negatiboa / Masa

+24V kz kontaktupean / Sutzea

2.2.5. Segurtasun-sistemak.

- Ekipoa edozein manipulazio desegokiren, zuhurtziagabekeriaren edo funtzionamendu-urritasunaren kontra babestua egongo da.
- Kabinatik eta eragiketa-koadrotik segurtasunerako gelditze-botoia sakatu ahal izango da. Zirkuitua blokeatu eta edozein eragiketa etengo da.
- Atzean ikusteko kamera aginte-panelean integratuta dagoen monitorearekin kabinan.
- EEren araudiaren arabera atzealdean estribo-uhalek homologatuak (atzerako martxaren blokeoa eta 30 km/h-ko muga).
- Argi birakari distiragarriak, indarreko araudiaren arabera.
- Atzerako martxan alarma aldakorra.
- Zama esekietan mugimendu hidrauliko guztiei dagokienez erorien kontrako balbula hidropilotatuak.

2.2.6. Beste prestazio batzuk

- Erratz eta palarako euskarria.

Xasisa

2.2.7. Xasisaren ezaugarriak

Motorra:

- Diesela, pare altuarekin biraketa baxuetan.
- Gutxieneko potentzia: 220 ZP.
- Lan-zikloan zehar biraketen erregimena konstantea mantentzeko erreguladorearekin.
- EURO VI araudia betetzea.

Transmisioa eta kate zinematikoa:

- Abiadura-kaxa automatikoa (ez-automatizaturia), pare-bihurgailua.
- Indar-hartunea konexio konstantearekin.

Esekidura:

- Aurrekoa balezta.
- Atzekoa pneumatikoa.

Balaztatze-sistema:

- ABS- ASR sistema edo antzekoa.
- Disko aireztatuak aurrealdean eta atzealdean.
- IAT azterketetarako airearen presio-hartuneak.

Kabina:

- Motza.
- 2 plaza kabinan.
- Aire girotua edo klimatizagailua.
- Araututako su-itxalgailuak.
- Triangeluak.
- Esku libreko instalazioa.
- Atzerako ispiluak kaxaren zabalerari doitutako dimentsioekin. Lurrunaren kontrako berogailuak.

Can Bus (FMS protokoloa):

- Aktiboa eta erabiltzeko eskuragarria, kostu osagarririk gabe kableetan interkonexioa, konektoreak edo aktibazio-eskeak.

2.2.8. Baldintza orokorrak

- Pintatua. Margotu behar diren gainazalak desugertu, deskoipetu eta fosfatatu beharko dira. Bi inprimaketa-geruza

antioxidatzaile izango dituzte eta beste bi kanporako pintura-geruza, RAL 9010 zuria, araudiari erreparatuz, islatzailez estali behar diren zonak izan ezik. Kaxan eta xasisean San Markoko Mankomunitatearen anagramekin errotulatzea.

- Erabilerari eta mantentze-lanei buruzko eskuliburuaren bi ale euskaraz edo gaztelaniaz. Bertan ekipoaren elementu guztiei dagokien desmuntatzea azalduko da. Ordezkoen eskuliburu. Kopia formatu digitalean.
- Zirkuitu hidraulikoen eta elektriko-elektronikoen eskemak, osagaiak identifikatuz, bai paperean, baita formatu digitalean ere.
- Prestakuntza-ikastaroa. Kontrol-elementu, manipulazio eta abarri buruzkoa gidarientzat eta lantegiko langileentzat mantentze-lan eta konponketei buruz. Lantegi-buruaren iritziz nahikoa iraupena (10-15 ordu) izango du, teoria eta praktika barne. Ikastaroak San Markoko Mankomunitatearen eremutik kanpo egiten badira, esleipendunaren kargura izango dira.

3.- BERME-EPEA, ARRETA TEKNIKOAREN ZERBITZUA ETA MANTENTZE-LANAK

Gutxienez urtebetez berme osoa eta bost urtez osagarria kaxak xaflan eta pinturan izan ditzakeen ezkutuzko akatsen kontra.

Aurkeztu eta onartutako eskaintzarekin bat, ekipoaren funtzionamendu-proba orokorrak gauzatu ondoren hartuko da. Eraitza aldekoa bada, San Markoko Mankomunitateak hornidura jasotzat joko du eta, orduan, berme-epeari ekingo zaio.

Bermearen barruan piezak eta eskulana sartuko dira, baita ibilgailua dagoen tokira langile adituen joan-etorriak edo garrantziaren arabera konponketa-tokiraino eramatea ere, betiere fabrikazio- edo muntatze-akatsarengatik bada. Sortutako gastu guztiak esleipendunaren kargura izango lirateke.

Proposamen teknikoak Mankomunitateari eskaini beharreko arreta teknikoaren alderdiak zehaztuko ditu.

4.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Enpresa lehiakideek beren eskaintzetan oinarrian honako dokumentazioa aurkeztuko dute:

- Memoria: zehatz-mehatz deskribatuko dira, Orri honetan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa den dokumentazio

grafikoarekin, eskatzen diren ezaugarri teknikoak. Besteak beste, honakoak zehaztuko dira:

- .- Erabilitako altzairuak eta lodierak bereiztea eta haustura-karga (kg/mm^2) HB gogortasuna adieraztea.
- .- Hidraulika. Eragintza-sistemak, presioak, aginte-sistemak, etab.
- .- Trinkotze-ganberaren bolumena. Toberaren bolumena.
- .- Prentsatzeko-zikloaren denbora. Edukiera (m^3 hondakin/minutu) eta bultzada.
- .- Materialen arabera trinkotze-erlazioa.
- .- Igotzen ari den edukiontzia-ibilbideari buruzko grafikoak.
- .- Edukiontzi-igogailuak: gehieneko karga onargarriari dagokionez, igotze-gaitasuna (kg), zikloaren iraupena.
- .- Ainguraketa-besoek jarduteko edukiontzien gutxieneko bereizte-distantzia.
- .- Xasisa: eskatutako ezaugarriak betetzen direla egiaztatzeko deskribapen grafikoa. Planoak dimentsio mugatu guztiekin. Gehieneko pisu teknikoa.
- .- Kontsumo normalizatu edo berezia.
- .- Gasen igorpen-maila, ziurtatuak.
- .- Ekipoa funtzionatzen ari denean soinu-igorpenen maila, EN 1501-4 Arauaren arabera ziurtatuak.
- .- Indar-hartunearen ezaugarriak.
- .- Eskaintza hobe ulertzeko, eskaintzaileek komenigarritzat jotzen duten gainerako informazioa.

Eskaintzan argi eta garbi bereizia eta zehaztua ez badago, ez da ezaugarri, alderdi tekniko edo hobekuntzarik balioztatuko, hau da, katalogoetako, liburuxketako eta abarreko informazioa ez da kontuan hartuko, nahiz eta eskaintzaileak aurkeztu.

5.- HORNIDURA GAUZATZEKO EPEA

Ibilgailuaren emate-epea gehienez 6 hilabetekoa izango da, kontratua sinatu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

6.- AKATSAK ETA OKERRAK BERME-EPEAN

1. Berme-epean hornitutako ondasunetan akatsak edo okerrak daudela egiaztatzen bada, San Markoko Mankomunitateak esleipendunari desegokia dena ordezkatzeko eta konpontzeko eskatu ahal izango dio.
2. Berme-epean esleipendunak hornitutako ondasunak aplikatzeari buruz ezagutu eta entzuna izateko eskubidea du.
3. Berme-epean zehar esleipendunari egotz dakizkiokeen akats edo erroreengatik kontratazio-organoak hornitutako ondasunak

helbururako egokiak ez direla uste badu eta ondasunak ordezkatu eta konpontzearekin helburua lortzeko nahikoa ez dela pentsatzen badu, epea amaitu baino lehen ondasunak uka ditzake eta kontratistaren kontura utziko ditu. Ordaintzez salbuetsia geldituko da edo, bidezkoa bada, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

4. San Markoko Mankomunitateak artikuluko honen 1. eta 3. ataletan aipatzen diren eragozpen edo salaketarik egin gabe berme-epea amaitzen bada, kontratista hornitutako ondasunaren erantzukizunez salbuetsia geldituko da.

Donostian, 2016ko apirilean.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE UN VEHÍCULO DE RECOGIDA DE CONTENEDORES CARGA TRASERA PARA RESIDUOS URBANOS PARA LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE UN VEHÍCULO DE RECOGIDA DE

CONTENEDORES CARGA TRASERA PARA RESIDUOS URBANOS PARA LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS.

1.- OBJETO DEL PLIEGO

El presente pliego tiene como objeto la contratación del suministro y carrozado de un vehículo recolector/compactador para recogida de residuos en contenedores de carga trasera, con caja fija de 12 m³ de capacidad y destinado a los distintos servicios de recogida que la Mancomunidad de San Marcos tiene implantado en el ámbito urbano de su ámbito competencial, de conformidad con el presente Pliego y con las especificaciones contenidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas.

El vehículo de recogida estará destinado principalmente a servicios de recogida "a puerta" de cartón comercial, contenedores para papel-cartón y envases ligeros del hogar.

Los adjudicatarios entregarán los vehículos completamente carrozados, siendo éstos los responsables de la perfecta idoneidad y compatibilidad entre caja y chasis a todos los efectos. Se entregarán en las instalaciones que designe la Mancomunidad, puesto en carretera a falta únicamente del seguro. Se incluirán por ello en el precio de licitación todos los gastos derivados de su legalización, matriculación y rotulación.

Asimismo comprenderá la entrega de la documentación de uso y mantenimiento que se exija y la impartición de un curso de formación del manejo de los equipos suministrados.

2.- ESPECIFICACIONES TÉCNICAS.

2.1. Normativa y Seguridad.

Los vehículos así como la caja serán conformes a la directiva de máquinas, constructivas y a la normativa que regula las emisiones sonoras en el entorno en vigor en el momento de la entrega. Estos datos deberán ser avalados por informes de empresas independientes que recojan las mediciones técnicas realizadas al efecto y sus homologaciones correspondientes.

Deberá aportar declaración de conformidad y marcado CE del conjunto de la máquina, chasis más equipo, no pudiéndose presentar por separado el marcado del chasis y el marcado del equipo. Estos datos vendrán avalados por un informe que recoja mediciones técnicas realizadas al efecto y sus homologaciones correspondientes.

2.2. Resto de características técnicas.

La concepción básica de los vehículos debe tener en cuenta las condiciones exigibles a un servicio de recogida de residuos en el ámbito urbano, entre las que destacarían un nivel mínimo de ruido y emisiones de gases de escape, así como una óptima maniobrabilidad y relación capacidad-dimensiones.

El equipo solicitado correspondería a un vehículo de 2 ejes de 14 Tm mínimo de MMA, con una potencia mínima de 220 cv. y una capacidad de caja mínima de 12 m³ útiles, tolva no incluida.

Considerando los servicios a los que van a ir destinados deberá disponer de dimensiones recortadas con una anchura máxima de 2.350 mm para el chasis y 2.400 mm para la caja y longitud total de 7.700 mm.

Presentará condiciones adecuadas de seguridad, robustez, durabilidad, estanqueidad y limpieza, con un equipamiento mínimo de:

Equipo de Recogida.

2.2.1 Caja.

- Caja compactadora.
- Compactación regulable en función de los residuos a recoger.
- De chapa de acero de alta tensión y con espesores adecuados.
- Eyectora pasante, que permita la total descarga de la caja.
- Ventana lateral de inspección de tolva.
- Guardabarros incluidos.
- Bandas reflectantes según normativa.
- Se valorará disponer de engrase automático centralizado.

2.2.2 Tolva de carga.

- Apertura y cierre del portón trasero automático mediante cilindros hidráulicos.
- Altura de borde de carga aproximado de 1400 mm. Abatible de accionamiento semiautomático.
- Estriberas plegables con control de presencia, con protecciones.
- Limitador de 30 km/h e inhibición de marcha atrás con operario en estribera.
- Faro de trabajo trasero para iluminación de la zona de carga.
- Faro giratorio con protección.
- Dispositivo de bloqueo.

2.2.3 Grupo elevacontenedores.

- Elevacontenedores trasero, instalado en la zona posterior del vehículo, de máxima polivalencia diseñado para contenedores y cubos normalizados desde 120 a 1.100 litros tapa plana.
- Peine para aprehensión ventral y ventosas. Brazos para contenedores de 4 ruedas con bulones.

2.2.4 Mandos, ciclos operativos e instrumentos de control.

- Monitor de control multifunción instalado en la cabina del vehículo. Posibilidad de descarga desde el panel de control.
- Dos botoneras traseras completas de control del compactador y elevación, una en cada lateral, incluyendo parada de emergencia.
- Doble pulsador mantenido para el descenso de la tolva.
- Contador de horas de trabajo del equipo, de ciclos de compactación y de alzadas.
- Se valorará disponer al menos de las siguientes señales directamente en cabina sobre una regleta / conector ISO hembra.

Señales digitales:

- .- Ciclo subida. (Flanco +24V c.c, permanente durante el ciclo)
- .- Ciclo bajada. (Flanco +24V c.c, permanente durante el ciclo)
- .- Punto de pesaje. (Flanco +24V c.c, puntual al pasar por el punto establecido como Punto de Pesaje)

Tomas de alimentación con sus fusibles de protección:

- .- Conector ISO con pre-instalación de las siguientes señales:
 - +24V. c.c. directo
 - Negativo / Masa
 - +24V. c.c bajo contacto / Ignición

2.2.5. Sistemas de seguridad.

- El equipo deberá estar protegido contra cualquier manipulación indebida, imprudencia o deficiencia de funcionamiento.
- Desde cabina y desde el cuadro de operaciones podrá accionarse un botón de paro de seguridad con bloqueo del circuito e interrupción de cualquier operación.
- Cámara de visión trasera con monitor en cabina integrado en panel de mandos.
- Estriberas posteriores homologados según normativa de la CE (Bloqueo marcha atrás y límite 30 km/h).
- Faros giratorios destellantes, según normativa vigente.
- Alarma marcha atrás variable.
- Válvulas hidropilotadas anticaída en todos los movimientos hidráulicos en cargas suspendidas.

2.2.6. Otras prestaciones.

- Soporte para pala y escoba.

Chasis

2.2.7. Características del chasis.

Motor:

- Diesel, de par elevado a bajas revoluciones.
- Potencia mínima de 220 CV.
- Con regulador para mantener constante el régimen de revoluciones durante el ciclo de trabajo.

- Cumplimiento de la normativa EURO VI.

Transmisión y cadena cinemática:

- Caja de cambios automática (no automatizada), convertidor de par.
- Toma de fuerza en conexión constante.

Suspensión:

- Delantera ballesta.
- Trasera neumática.

Sistema de frenado:

- Sistema ABS- ASRo similar.
- Discos ventilados delanteros y traseros.
- Tomas de presión de aire para revisiones ITV.

Cabina:

- Corta.
- 2 plazas en cabina.
- Aire acondicionado ó climatizador.
- Extintores reglamentarios.
- Triángulos
- Instalación manos libres.
- Espejos retrovisores con dimensiones ajustadas a la anchura de la caja. Calefactados antivaho.

Can Bus (protocolo FMS):

- Activo y disponible para su empleo e interconexión sin costes adicionales en cableados, conectores o requerimientos de activación.

2.2.8. Requisitos generales.

- Pintado. Las superficies a pintar deberán tratarse mediante decapado, desengrasado y fosfatado, dos capas de imprimación antioxidante y dos capas de pintura exterior, en blanco RAL 9010, salvo las zonas que según normativa deban ir recubiertas en reflectante. Rotulación con anagramas de la Mancomunidad de San Marcos en caja y chasis.
- Dos juegos de manuales de uso y mantenimiento en euskera o castellano, que incluya despiece de todos los elementos del equipo. Manual de recambios. Copia en formato digital.
- Esquemas de los circuitos hidráulicos y eléctrico-electrónicos, con identificación de componentes, tanto en papel como en formato digital.

- Curso de formación. Para conductores sobre elementos de control, manipulación, etc., y para personal de taller, sobre mantenimiento y reparación, de duración suficiente a juicio del Jefe de Taller (10-15 horas), incluyendo teoría y práctica. Si los cursos se realizan fuera del ámbito de la Mancomunidad de San Marcos, serán por cuenta del adjudicatario.

3.- PLAZO DE GARANTÍA, SERVICIO DE ATENCIÓN TÉCNICA Y MANTENIMIENTO..

Garantía total mínima de un año y adicional de la caja contra vicios ocultos en chapa y pintura de cinco.

La recepción tendrá lugar una vez realizadas las pruebas de funcionamiento general del equipo de acuerdo a la oferta presentada y aprobada. Si el resultado es satisfactorio, la Mancomunidad de San Marcos dará por recibido el suministro, comenzando entonces el plazo de garantía.

La garantía deberá incluir piezas y mano de obra, con desplazamiento de personal especializado al lugar donde se encuentre el vehículo, o bien traslado del mismo al lugar de reparación en función de su magnitud, siempre y cuando fuese imputable a defecto de fabricación o montaje. Sería de parte del adjudicatario todos los gastos ocasionados.

La propuesta técnica deberá detallar aspectos referentes a la atención técnica a prestar a la Mancomunidad.

4.- PRESENTACIÓN DE LA OFERTA

Las empresas concursantes en sus ofertas presentarán básicamente la siguiente documentación:

- Memoria: se describirá detalladamente con cuanta documentación gráfica sea necesaria de acuerdo con lo establecido en este Pliego, especificando las características técnicas solicitadas. Se especificará entre otras:
 - .- Desglose de aceros empleados, así como los espesores, indicando carga de rotura (kg/mm²) dureza HB.
 - .- Hidráulica. Sistemas de accionamiento, presiones, sistemas de mando, etc.
 - .- Volumen de cámara de compactación. Volumen de la tolva.
 - .- Tiempo de ciclo de prensado. Capacidad (m³ de residuo/minuto) y empuje.
 - .- Relación de compactación por material.

- .- Gráficos de la trayectoria del contenedor en elevación.
- .- Elevacontenedores: capacidad de elevación (kg.) de carga máxima admisible, duración del ciclo.
- .- Distancia mínima necesaria de separación de contenedores para la actuación de los brazos de enganche.
- .- Chasis: descripción gráfica que permita comprobar el cumplimiento de las características exigidas. Planos con todas las dimensiones acotadas. Peso técnico máximo.
- .- Consumo normalizado o específico.
- .- Nivel de emisión de gases, certificadas.
- .- Nivel de emisiones sonoras del funcionamiento del equipo, certificadas según la Norma EN 1501-4.
- .- Características de la toma de fuerza.
- .- Resto de información que los licitadores consideren convenientes para una mejor comprensión de la oferta.

No se valorará ningún atributo, aspecto técnico o mejora que no esté claramente diferenciado y detallado en la oferta, es decir, no se tendrá en cuenta la información contenida en catálogos, folletos, etc. aportados por el licitador.

5.- PLAZO DE EJECUCIÓN DEL SUMINISTRO

El plazo de entrega del vehículo será como máximo de 6 meses a partir del siguiente día hábil a la firma del contrato.

6.- VICIOS O DEFECTOS DURANTE EL PLAZO DE GARANTIA

1. Si durante el plazo de garantía se acreditase la existencia de vicios o defectos en los bienes suministrados, la Mancomunidad de San Marcos tendrá derecho a reclamar al adjudicatario la reposición de los que resulten inadecuados y la reparación de los mismos.
2. Durante este plazo de garantía tendrá derecho el adjudicatario a conocer y ser oído sobre la aplicación de los bienes suministrados.
3. Si el órgano de contratación estimase, durante el plazo de garantía, que los bienes suministrados no son aptos para el fin pretendido, como consecuencia de los vicios o defectos observados en ellos e imputables al adjudicatario y exista la presunción de que la reposición y reparación de dichos bienes no serán bastantes para lograr aquel fin podrá, antes de expirar dicho plazo, rechazar los bienes dejándolos de cuenta del

contratista y quedando exento de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.

4. Terminado el plazo de garantía sin que la Mancomunidad de San Marcos haya formalizado alguno de los reparos o la denuncia a que se refieren los apartados 1 y 3 de este artículo, el contratista quedará exento de responsabilidad por razón de los bienes suministrados.

Donostia-San Sebastián, abril de 2016.